





GORPUTZA!



Gorputza mugitzeko LOKOMOZIO-APARATUA behar dugu.




ZER DA LOKOMOZIO-APARATUA?

Mugitzeko behar ditugun organo eta atalen multzoa da.

(Los órganos y partes del cuerpo que necesitamos para movernos forman el aparato de locomoción)



GURE HEZURDURA edo
ESKELETOAREN HEZURREN IZENAK:




1.ESKELETOA edo HEZURDURA


Izaki bizidunok daukagun hezur –multzoari eskeletoa edo hezurdura deitzen zaio.



ORNODUNAK GARA HEZURRAK DITUGULAKO!




ZERTARAKO
BALIO DUTE
HEZURRAK?




Hezurak ez dira guztiak berdinak; betetzen duten eginkizunaren arabera egokituta daude.

Hala badira:



- **Luzeak:** zangoetako eta besoetako hezurak.




- **Laburrak:** bizkarrezurra osatzen duten ornoak edo eskumuturrekoak



- **Zapalak:** burezurra osatzen duten hezurak, omoplatoa...

Hezurak elkarrekin lotzen diren tokiari giltzadura deritzo. Hainbat giltzaduratan lokailu edo ligamentuak ditugu, hezurak elkarren artean ondo lotzeko.



2.GIHARRAK

Giharrak hezurretan finkatzen dira eta horri esker mugi gaitetzke.

Bazenekien, gure gorputzaren pisuaren erdia giharrek osatzen dutela?

